



Elikagaiak eta kutsadura

Lutxanako (Barakaldo) auzo elkarteak gonbidatuta, otsaileko azkeneko astean Miquel Portak hitzaldia eskaini zuen bertan. Miquel Porta Malagako Ikerketa Institutuko Epidemiologia eta Minbizi Molekularreko Unitateko zuzendaria da, eta bere lana, industria ezberdinek kutsatutako elikagaiak gizarlean sortzen dituzten arazoak bideratzea da.

Ariketa honetan Miguel Porta doktoarearen lanbidearekin zerikusia daukaten hiru gertaeren berri emango dizuegu, eta gertaera horien inguruko informazioa bildu beharko duzue. Taldeka banatuta, zuek erabaki zenbat talde egin nahi dituzuen, gertakari horien inguruko informazioa aurkitzeaz gain, gertakari horiek aztertu eta gelan aurkeztu beharko dituzue, ziurrenik gainontzeko ikaskideek ez baitituzte ezagutu ere egingo.

Ariketa amaitzeko, hausnarketarako tarte zabalduko dugu. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak joan den urteko apirilean argitaratu zuen Osasuna eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. 2007ko adierazleak txostena lagungarria gertatuko zaizue lan honetan.

1• Minamata

1956. urtean Minamata (Japonia) hiriko biztanleen artean antzeko sintomak adierazten zituzten pertsonen kasuak agertzen hasi ziren. Koordinazio falta, beso eta zangoetan sen-

tsibilizazio eza, ikusmena eta entzumenaren galtzea, paralsiak... Hasiera batean, agintariek ez zioten garrantzirik eman. Hiru urte beranduago, egoerak larrituta, azterketa bideratzea erabaki zuten. Hamabi urte behar izan zituzten gaixotasun horien kausa ezagutzeko: industria batek ibaira botatako merkurioak eragindakoa zen. Merkurio horrek arrainak kutsatu zituen. 900 lagun hil eta beste 2.000 pertsonengan ondorioa izan zuen.

2• Lindanea Bizkaian

Lindanea kloroarekin eta bentzenoarekin egiten den pestizida mota bat da. Bizkaian Bilbao Chemical (Barakaldo) eta Nexana Celamerck (Sestao) enpresak lindanea ekoizten hasi ziren 50. hamarkadan. Bi hamarkada beranduago, pestizidak biztanleentzat ondorio kaltegarriak dituela ohartu ziren. Lantokiak itxi zituzten eta Eusko Jaurlaritzak lan handia egin behar izan zuen kutsatutako lurra arriskutik kanpo uzteko. Orain egoera kontrolpean dagoela diote. Ingu-

HELBURUAK

- Kutsatutako elikagaiak sor ditzaketan ondorioak ezagutzera.

MATERIALAK

- Interneteko sarbidea

HARREMANA DUTEN GAIAK

- Atzerriko Hizkuntza
- Naturaren Zientziak

ruko zenbait talde ekologistek, ordea, pestizidaren eragina hiru belaunaldik pairatuko dutela diote.

3• Kutsatuta dokumentala

Josh Shorek zuzendutako dokumental honetan AEBetako konpainia agrokimikoek bultzatzen duten politika gogor salatzen da. Adituen testigantzak jasotzen ditu, eta horien iritziz, "oso arriskutsua da konpainia hauek elikagaien katea kontrolatzeko egiten ari diren ahalegina". Industriak, gainera, garapenerako bidean dauden herrialdeetara leku aldatzen ari direla diote, "bertako politikariak eta zientzia-gizonak errazago erosten dituztela".

Dokumentala www.masternewmedia.org/es/2007/03/17/la-nueva-ciencia-de-los.htm helbide elektronikoan aurki dezakezue. Ingelesez dago, baina behar izanez gero gaztelarazko transkripzioa aurki dezakezue leku berean.



Merkurioak eraginda 900 lagun hil ziren Minamatan. Argazkian, hildakoen senitarteko bat protesta egiten.